# kultur agenda

# BERRIOBEITI

**Berriobeitiko Udala** | Aitzoain Añezkar | Artika Ballariain | Berriobeiti Berriogoiti | Elkarte Larrageta | Lotza Oteitza













## 2026ko MAIATZA / EKAINA





**Irudiak:** Kirolaren Eguna (05-16); Memoriaren Astea, erakusketa (05-6/29); ibilbide Osasuntsuak; Euskararen Jaia: erraldoiak, bazkaria eta herri kirolak (06-6); Kirolaren Eguna; eta Memoriaren Asteko antzerkia (05-23)

**Argitaratzailea**:
Berriobeitiko Udala
L.O.: NA 253-2015
Doan banatzen da

Casa de Cultura
MARIA DE MAEZTU
Kultur Etxea

MISTOA
Papera | Basogintza arduratsua babesten
Papel | Apoyando la silvicultura responsable
FSC® C021816
FSC www.fsc.org

# BERRIOBEITIKO KULTUR AGENDA

MAIATZA-EKAINA/2026
Argitaratzailea: Berriobeitiko Udala
Doako zabalpena

## OHARRAK

**PUNTUALTASUNA**
Ikuskizuna hasi ondoren, ezin izanen da inor aretoan sartu.

**SOINU-SEINALEAK**
Aretoan sartzerakoan deskonektatu beharko dira.

**GRABAKETAK ETA ARGAZKIAK**
Debekatuta daude.

**JANARIAK ETA EDARIAK**
Aktoreek eta ikusleek merezi duten begiruneagatik, barne-ikuskizunetan ezin izanen da jan, ezta edan ere.

**ITZULTZEAK**
Sarrera bat erosteko ordaindutako dirua itzultzeko arrazoi bakarra ikuskizuna bertan behera uztea izanen da.

**SARRERAK**
Zenbakidun sarrerak.

## TXARTEL SALMENTA

Ikuskizunetarako txartelak María de Maeztu Kultur Etxean erosten ahalko dira **emanaldi bakoitzaren aurreko astean. Ez da telefono bidezko erreserbarik onartuko**.

NAFARROAKO ANTZOKI SAREA

**LEIHATILAN**
(Kultur Etxeko Atezaindegian). Ikuskizun bakoitza hasi baino ordubete lehenagotik.

**ALDEZ AURRETIK**
**www.berrioplano.es** webgunean eta Kultur Etxeko atezaindegian, 16:00etatik 21:00etara.

## KULTUR EKIPAMENDUA

**KULTURA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:**
cultura@berrioplano.es

**MARIA DE MAEZTU KULTUR ETXEA**
Iturribidea, 1. Artika
**Tel:** 948 38 32 54
**Kafetegi-Taberna**
**Tel:** 948 78 31 57

**EUSKARA ZERBITZUA**
Udaletxean
**Tel:** 948 30 31 29 / 634 51 53 84
**Posta elektronikoa:**
euskara@berriobeiti.eus

**KIROLA ETA GAZTERIA ZERBITZUA**
Udaletxean **Tel:** 948 30 31 29
**Posta elektronikoa:**
deporteyjuventud@berrioplano.es

**LIBURUTEGI PUBLIKOA**
Maria de Maeztu Kultur Etxean
**Neguko ordutegia:** 14:00etatik 20:00etara **Udako ordutegia** (ekainaren 15etik irailaren 14ra, biak barne: 08:30-14:30 **Tel:** 948 38 26 22 **Posta elektronikoa:** bibliarc@navarra.es

**ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA**
**BERRIOBEITI**
Andre Mariaren Garbikundea, 11.
**Ordutegia:**
10:00etatik 22:00etara
**Tel:** 948 13 18 29
(kafetegi-taberna)

**ARTIGUNE I ARTIKABERRI**
Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:**
948 30 31 29

**ARTIGUNE III ARTIKABERRI**
Leonor Akitaniakoa, 30
**Informazioa:**
948 30 31 29

**ORREAGA MUSIKA ESKOLA**
María de Maeztu Kultur Etxea
**Tel:** 616 72 52 18
**Posta elektronikoa:**
orreagamusika@gmail.com

**KONTZEJU ETXEAK**

**AITZOAIN**
Oronsuspe auzoa, 3

**AÑEZKAR** San Andres, 6
**Tel:** 618 77 84 61

**ARTIKA** Kontzeju Etxea (San Marcial, 9)
**Tel:** 948 38 37 93
"María Domínguez" Gizarte-Etxea (María Domínguez, 3)
**Tel:** 948 38 37 93

**BALLARIAIN** San Pedro, z/g

**BERRIOGOITI**
Santa Eulalia, 39
**Posta elektronikoa:**
concejodeberriosuso@gmail.com

**BERRIOBEITI**
Kale Nagusia, 2

**ELKARTE** Purificacion, 16

**LARRAGETA**
San Esteban, z/g
**Posta elektronikoa:**
concejo.larragueta@gmail.com

**LOTZA** San Juan, z/g
**Tel:** 690 68 68 50

**OTEITZA:** San Joan, 6
**Tel:** 651 65 83 14

# MAIATZA-EKAINA 2026

## UDAKO HIRI KANPALDIAK HAURRENTZAT

**948 012 012**
**Infolocal**

**1. TXANDA:**
ekainaren 24tik uztailaren 3ra

**2. TXANDA:**
uztailaren 15etik 31ra

**3. TXANDA:**
abuztuaren 3tik 14ra

**4. TXANDA:**
abuztuaren 17tik 28ra

**Adina:** 2014 - 2021 (biak barne)

**Info+ ordutegiak, egoitzak eta hizkuntzak**
**www.berrioplano.es**

### IZEN-EMATEA, APIRILAK 30, eta MAIATZAK 4 eta 5 (Erroldatutako pertsonak bakarrik)




Berriobeitiko Udalak eskainitako hiri kanpaldiak Haur Hezkuntzako 2. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitarte eskolatuak dauden haurrendako dira, hau da, izena ematean ikasmaila horietako batean eskolatuak egon behar dute; beraz, 2014tik 2021era bitarte jaio diren haurrentzat dira (biak barne).
Kanpaldiak gune ludikoak dira, familia eta lana bateragarri egiteko dauden beharrei erantzuteko; era berean, Zendeako haurrendako josteta eta garapen guneak sortu nahi dituzte hainbat gai lantzeko, aldi berean balioak eta sormena sustaturik.

## ORREAGA MUSIKA ESKOLA

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**
**616 725 218**
**orreagamusika@gmail.com**

### KULTUR ETXEKO ENTZUNALDIAK

Maiatzak 6, asteazkena
**KONTZERTUA: GITARRA**
17:30 / Auditorioa

Maiatzak 8, ostirala
**KONTZERTUA: HARPA**
18:00 / Auditorioa

Maiatzak 13, asteazkena
**KANTU ENTZUNALDIA**
18:00 / Erakusketa gela

Maiatzak 22, ostirala
**KONTZERTUA: ENSEMBLEA, ABESBATZA, COMBOA ETA ORKESTRA**
18:00 / Añezkar

Maiatzak 25, astelehena
**KONTZERTUA: COMBOAK**
17:30 / Comboen gela

Maiatzak 25, astelehena
**HAUR BANDA ETA HASTAPENA**
18:00 / Auditorioa

Maiatzak 29, ostirala
**KONTZERTUA: HELDUAK**
18:00 / Erakusketa gela

Ekainak 2, asteartea
**HASTAPEN KONTZERTUA**
18:00 / Erakusketa gela

Ekainak 11, osteguna
**IKASTURTE AMAIERAKO KONTZERTUA**
17:30 eta 19:00 / Auditorioa

### MATRIKULAZIOA. 2026-27 IKASTAROA

Barnekoa, maiatzak 4tik 10era (**web**ean)
Kanpokoa, maiatzaren 25etik ekainaren 7ra (**web**ean)
Irailaren 1etik 6ra berrirekiko da posta bidez (**orreagamusika@gmail.com**) edo **616 725 218**n

## MAIATZAK 06-29

### Erakusketa

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Non:** Erakusketa gela

**Ordutegia:** astelehenetik ostiralera, 16:00etatik 21:00etara, eta asteburuak, Kultur Etxean jarduerarik bada

**Darrera:** doan

**Antolatzailea:** Nafarroako Memoriaren Institutua – Nafarroako Gobernua eta Berriobeitiko Udala

### "Lur Azpian. Desobiratze goiztiarrak Nafarroan"




1978az geroztik, 1936ko estatu-kolpearen ondorioz Nafarroan erraildakoen senideek haien gorpuak aurkitu, lurpetik atera eta gorpuzkinak duintzeari ekin zioten. Erakusketaren bidez gogora ekarri nahi da urte haietan zer-nolako prozesua burutu zen erraildakoen gorpuzkinak lurpetik ateratzeko; Erriberan, batez ere. Horri esker, ehunka lagunen gorpuak berreskuratu ziren, guztiak ere harat-honat barreiaturiko hobi komunetan lurperatuak. Erakusketaren bidez gorazarre egin nahi izan dio Nafarroako Gobernuak ahalegin jendetsu horri eta, horretarako, agiri eta argazkien bidez daude ikusgai bai han-hemenka antolatutako batzordeak, bai gorpuak nola atera ziren lurpetik, bai hiletak, bai herri aunitzetan eraikitako panteoi errepublikanoak gorpuak duintasunez hobiratzeko. Prozesuan parte hartu zutenen eskuzabaltasunari esker egin da erakusketa, beren lekukotasunak emateaz gain, etxean gordeak dauzkaten materialak utzi baitituzte digitalizatzeko: oroigarriak, foiletoak, agiriak eta, batez ere, ekitaldi haien guztien argazkiak.

## MAIATZAK 06 / ASTEAZKENA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00 – 20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## MAIATZAK 07 / OSTEGUNA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**

**Ordua:** 10:00



### Bizitza aktiboa

"Ibilaldi osasuntsuak" programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da izena eman beharrik.

## MAIATZAK 12 / ASTEARTEA

### Ipuin-kontalaria

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Adina:** 4 urtetik aurrera

**Ordua:** 17:30

**Prezioa:** doakoa, aurrez izena emanda (948 38 26 22)



**“Verde que te quiero verde”**

CRISTINA HIDALGO

Birziklapenaren Eguna ospatzeko ipuin-kontalaria (maiatzak 17).

## MAIATZAK 16 / LARUNBATA

### Jarduera fisikoaren sustapena

**Kirolaren Eguna**



**Artikaberriko plaza Nagusia**

**11:00etatik AURRERA**

- Rocópolisko eskalada horma
- Zumba masterclassa, Artikako eta Berriobeitiko monitoreek emanik
- Haurrendako kirol jokoak (futbolina, ping pong, uztai jaurtiketa).

**Berriobeitiko pilotalekua**

**17:00-20:30**
hainbat talderen erakustaldiak eginen dira: hiri dantzak, eskupilota, igeriketa sinkronizatua, gimnasia erritmikoa, judoa, txiki zumba, takwondoa, kick boxing eta balleta.









# PROGRAMAZIOA **MAIATZA 2026**

## MAIATZAK 20 / ASTEAZKENA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00 – 20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## MAIATZAK 21 / OSTEGUNA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Lotza Kontzejuko Etxea**

**Ordua:** 10:00



**Bizitza aktiboa**

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da beharrezkoa izena ematea.

## MAIATZAK 21 / OSTEGUNA

### Hitzaldia

**Artigune III (Artikaberri)**

**Ordua:** 19:00

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Adina:** helduak

MEMORIAREN ASTEA

**“LGTBI nafarraren zapalkuntza frankismo garaian”**

OIER SANTAMARÍA REMÓN (NUPeko IKERLARIA)



Oier Santamaría Remón NUPeko ikerlariak mintzagai izanen du zer-nolako jazarpena pairatu zuen LGTBI kolektiboak Nafarroan, diktadura frankistaren garaian. Nafarroako garai hartako historian maiz isilarazi den alderdi bati eman dio Santamariaren azterlanak ikusgaitasuna.

## MAIATZAK 22 / OSTIRALA

### Arratsaldeko solasaldiak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** helduendako

**Ordua:** 18:00 – 19:00




Hitz egitea duzu gustuko? Zorionekoa zu! Hilean ostiral batez elkartzen baikara zabaltasunez, era solidarioan, umore senez eta pentsamendu kritikoa sustatuz solas egiteko. Etorriko zara?

## MAIATZAK 23 / LARUNBATA

### Haur tailerra euskaraz: “Aisialdian ERE euskaraz”

**Berriogoitiko Kontzeju Etxea**

**Ordutegia:** 16:30–18:30

**Adina:** Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendua

**Doako jarduera**, aurrez maiatzaren 14tik 21era izena emanda (948 012 012)

**Antolatzailea:** Euskara Zerbitzua

**Laguntzaileak:** Berriogoitiko Kontzejua eta Nafarroako Gobernua

#### Krepe tailerra




Programa honek aisia euskaraz lantzeko aukera ematen die Zendeako herri txikienetako haurrei, hilean larunbat batez. Parada ederra da euskara eskolatik kanpo erabiltzeko eta, era berean, beste herri batzuetako haur euskaldunak ezagutzeko. Oraingo honetan, krepeak egiten ikasi eta, gero, ahogozatuko dituzte.

## MAIATZAK 23 / LARUNBATA

### Antzerkia

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Ordua:** 19:00

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Sarrera:** 8 € aurrez / 9 € leihatila

**Adina:** 12 urtetik aurrera

**Antolatzailea:** Nafarroako Antzoki Sarea

#### “Mujeres que cantaban tras el balcón”

Sendaberri
Nuevos paisajes escénicos
Paisaia eszeniko berriak

ADRIANA SALVO – BOGA BOGA




Amona, zer abesti kantatzen zenituen gaztetan? Nolakoak ziren antzezlanak? Neska aktore bat hizketan ari da ezagutu ez duen bere amonarekin. Amonak, gerra ostean, auzokideak publiko bihurtu zituen, eta sukaldea, eszenatoki. Bilobak horixe ulertu nahi du. Ikasiko du bere amonaren zer dagoen berarengan, eta belaunaldi horren zer, gu guztiongan. Autobiografia, dokumentu-antzerkia eta objektu-antzerkia baliatzen dira istorioa kontatzeko. Azken buruan, gorazarre egin nahi izan zaie Nafarroako Erdialdeko emakume artisten oroimenari eta duintasunari, beren talentua publikoaren zerbitzuan jarri baitzuten II. Errepublikan, baina gerra ondoren eremu pribatura baztertu zituzten.

## MAIATZAK 25 - 29

### Tailerra

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Hizkuntza:** gaztelaniaz

**Adina:** helduak

**Ordua:** 16:00–18:00

**Prezioa:** doan, aurrez izena emanda (948 012 012)



#### Administrazio elektronikoa

IKTak erabili eta maneiatzeko tailerra, Nafarroako Gobernuak emana (Nasertic).

# PROGRAMAZIOA **MAIATZA-EKAINA 2026**

Euskararen jaia
BERRIOBEITIKO ZENDEA | CENDEA DE BERRIOPLANO

Altzoain Aizoaín Artika Ballariain Berriobeiti Berriozar Elkarte Larragueta Lotza Oteitza 2026

## MAIATZAREN 31 / IGANDEA

### Artika





## Orientazio proba

Euskararekin loturiko mugarrien bilaketa

10:30 Izen-ematea
11:00-11:30 Irteera mailakatua
13:00 Bukaera eta otamena

**Irteera:** Artikako María de Maeztu Kultur Etxea

**Izen-ematea:** taldean (1 - 5 parte-hartzaile), maiatzaren 26tik 30era, **948 012 012** telefonoan eta, egunean berean, jarduera hasi baino lehen



## EKAINAK 01 / ASTELEHENA

### Artika

ESCUELA DE MÚSICA
ORREAGA
MUSIKA ESKOLA

## Kontzertua Orreaga Musika Eskola

Ahots ensemblea comboarekin. Euskarazko musika errepertorioa.

**Ordua:** 18:30
**Non:** Artikaberriko plaza

## EKAINAK 06 / LARUNBATA

### Artika (Artikaberri)







### Egitaraua

**11:00** Kalejirak, erraldoiak, dantzariak eta txaranga

**12:30** Herri Kirolak, bertso moldean

**14:15** Haurren bazkaria

**15:00** Helduen bazkaria

**14:30-17:00** Haur eta nerabeendako tailerrak eta jolasak

**16:30** Kantuz, kantu zaharrak Irati eta Ekiñe Mindegiarekin

**17:00** Talo tailerra

**19:00** Haur ikuskizuna

**19:00-21:30** Dantzaldia: The Trikiteens

**22:00** Burutik taldearen kontzertua





## EUSKARAREN EGUNARI BURUZKO OHARRAK

### Kuadrillen arteko herri kirol txapelketa

**Adina:** 12 urtetik aurrera.
**Osaera**: gutxienez 4 taldekide eta mistoa
**Izen-ematea:** aurrez, 948 012 012n, maiatzaren 22tik ekainaren 5era, edo egunean bertan, 10:30etik 11:00etara
**Saria:** Errigorako produktu saskia

### Herri bazkaria: BES elkartearekin elkarlanean

**Sarreren salmenta:** www.betifest.com
Maiatzaren 20tik 31ra
**Prezioa:** 21 € helduen menua eta 11 € haur menua (12 urtera arte)
**Menua:** sagardotegi menua (aukeran, arraina)
**info+:** udal webgunea

### Autobusa doan *JOAN-ETORRIKO AUTOBUSAK*

**Joatekoa:** 10:30 eta 13:00
**Ibilbidea:** Añezkar – Berriobeiti – Berriogoiti – Aitzoain – Artika (herria) – Artikaberri
**Etortzekoa:** 21:45 eta 23:45 **Ibilbidea:** Artikaberri – Artika (herria) – Aitzoain – Berriogoiti – Berriobeiti – Añezkar
**+info:** udal webgunea

# PROGRAMAZIOA **EKAINA 2026**

## EKAINAK 3 / ASTEAZKENA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00–20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## EKAINAK 5 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**

**Ordua:** 10:00



**Bizitza aktiboa**

"Ibilaldi osasuntsuak" programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da izena eman beharrik.

## EKAINAK 9 / ASTEARTEA

### Mahai jokoak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** jende guztiarendako

**Ordua:** 17:00–20:00




Kartak, partxisa, xakea, catán, birus, trivial, dixit... Zatoz probatzera, doakoa da!

## EKAINAK 12 / OSTIRALA

### Arratsaldeko solasaldiak

**Berriobeitiko Liburutegi Publikoa (Artika)**

**Adina:** helduendako

**Ordua:** 18:00 – 19:00




Hitz egitea duzu gustuko? Zorionekoa zu! Hilean ostiral batez elkartzen baikara zabaltasunez, era solidarioan, umore senez eta pentsamendu kritikoa sustatuz solas egiteko. Etorriko zara?

# PROGRAMAZIOA **EKAINA 2026**

## EKAINAK 12 - 14

### Berriobeitiko Jaiak





## EKAINAK 13 - 14

### Ballariaingo Jaiak





## EKAINAK 19 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Kultur Etxea (Artika)**
**Ordua:** 10:00



**Bizitza aktiboa**

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da beharrezkoa izena ematea.

## EKAINAK 19 - 20

### Oteitzako Jaiak






## EKAINAK 20 / LARUNBATA

### Kontzertua

**María de Maeztu Kultur Etxea (Artika)**

**Ordua:** 19:00

**Sarrera:** 8 € aurrez / 9 € leihatila

**Adina:** jende guztiarentzat

**Colabora:** Gobierno de Navarra

### “Xuxurlaka”

ACHÉ PA TI

Talde beterano honek 25 urte beteko ditu laster. Honatx taldekideak: Fermin Goñi (txistua), José Ramón García (pianoa eta konposizioak), Jokin Zabalza (baxua eta gitarra) eta Alex Ruiz-Pastor (perkusioak).



Jatorrian, Latin Jazz taldea izan zen, boskote formatu tradizionalarekin (sekzio erritmikoa eta tronpeta). Baina laster eboluzionatu zuen, txistua sartu zuenean. Proiektu honetarako, euskal kantutegi tradizionaleko




doinu batzuk aukeratu dituzte eta garatu ere taldearen ikuspegi artistikoari jarraituz, erritmo iradokitzaileekin eta moldaketa oso zainduekin interpretatuz. Hori guztia jatorrizko materiala errespetatuz eta erritmo afro-karibearren usainari uko egin gabe. Nerea Erbiti abeslaria aritzen da gonbidatu gisa eta, horri esker, euskal kantutegi oparoa arakatzen jarraitu dute, baita testuen bidez ere, ahotsaren ekarpen emozionala erantsiz.

## UZTAILAK 3 / OSTIRALA

### Ibilaldi osasuntsuak

**Berriobeitiko erabilera anitzeko eraikina**

**Ordua:** 10:00



### Bizitza aktiboa

“Ibilaldi osasuntsuak” programa, hilabeteko lehenengo eta hirugarren ostiraletan. Ez da beharrezkoa izena ematea.